

**OLABURU FRONTOIKO INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO  
PUBLIKOEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 44. artikulutik 50.era ezarritakoarekin bat etorriz, Udal honi erregelamenduak egiteko aitortu zaion ahala baliatuz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikulua eta harekin bat datozen arabera, lurralde mailako Herri Administrazioa izaki, Ordenantza honek izpide dituen udal lehiako jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezarri eta eskatzen dira, Ordenantza horretan bertan jasotako arauen arabera.

**2. artikulua**

Oro har, lehia lokaleko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordainarazi egin ahal izango da, prezio publikoen bidez, betiere, zerbitzu edo jarduera horiek ordaintzera behartuta dagoenarekin bereziki lotuta badaude, hari eragin eta laguntzen badiote, eta baldintza hauek betetzen badira:

- Administratuek beren borondatez eskatu edo jaso badituzte.
- Zerbitzu edo jarduerak sektore pribatutik eskaintzen badira.

**3. artikulua**

Ordenantza udalerrri osoan aplikatzen da

**II. ZERGAPEKO ZERBITZU EDO JARDUERAK****4. artikulua**

Bereziki, eranskinean zehazten diren zerbitzu edo jarduera eskaintzearen truke ordaindu beharko diren prezio publikoak zehazten dira.

**III. ORDAINTZERA BEHARTUAK****5. artikulua**

1. Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzera behartuta egongo dira prezio horiek ordaintzera behartzen duten zerbitzu edo jardueretatik etekinak jasotzen dituztenak.

2. Xede honetarako, onuradunak izango dira, eta ondorioz ordaintzera derrigortuta, prezio publikoak eskatzen dituzten zerbitzu edo jarduera eskatu dutenek.

**6. artikulua**

1. Honako erakunde hauek salbuesten dira ordainketatik:
  - a) lurreta udalerrian kokatuta dauden irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkar-teak., ez ohizko erabilera ematen diotenean instalazioari.
  - b) Beste herri batzutan kokatuta dauen irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkar-teak, ez ohizko erabilera ematen diotenean instalazioari. Erabilera horren helburua ongintzazkoa, soziala, kulturala edo guztion interesakoa izan behar da, eta lurreta udalerrian ohiartzun berezia izan behar du.

**IV. KUDEAKETA-ARAUAK****7. artikulua**

1. Eranskinean araututako tarifen arabera prezio publikoen kontura eskatu ahal izango diren kopuruak eskatutako edo emandako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira, eta tarifa bakoitzerako adierazitako kopuruak ezingo dira murriztu.



BEZ gabeko kopuruak dira lgo eranskinean agertzen direnak.

Kirol intalazioak erabiltzeko zerbitzua dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta dago, indarrean dagoen legediaren arabera.

#### **8. artikulua**

Ordenantza honetan aipatzen diren udal jarduerak egiteko edo zerbitzuak emateko, aldez aurretik eskatu beharko zaio Udal Administrazioari zerbitzuok ematea edo jarduerok egitea. Nolanahi ere, zerbitzu edo jarduera horiek eman badira, Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzearen mende geldituko da hori, eta eman ondoren, luzatu badira, prezio publikoak ordaintzen ez bada, zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea ekarriko du automatikoki.

### V. ORDAINTZEKO BETEBEHARRA SORTZEA

#### **9. artikulua**

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko betebeharra, zerbitzua ematen hasten denetik edo jarduera ematen denetik hasten da.

Hala ere, lehenagotik emandako eta luzatutako zerbitzu-emateak edo jarduerak direnean, tarifa bakoitzean adierazten diren denboraldi naturalak bakoitzaren lehen egunean sortuko da ordaintzeko betebeharra.

### VI. ORDAINKETA

#### **10. artikulua**

1. Dirubilketa Sailak egingo du prezio publikoen likidazio eta bilketa.

2. Oro har, Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko, udal diru-kutxetan zuzeneko gordailua egin beharko da, zuzenean dirua sartuta, zerbitzua eman edo jarduera gauzatu aurretik, eta tarifa adierazitako zenbatekoa ordainduta.

Emango diren zerbitzuen edo egingo diren jardueren ezaugarriengatik, aldez aurretik ordaintzerik ez badago, ordainagiri edo likidazioan adierazitako modu eta epean egin beharko da.

#### **11. artikulua**

Udalak prezio publikoak eskatu ditzake autolikidazio erregimenean.

#### **12. artikulua**

Prezio publikoa ordaintzera behartuta dagoenari egotzi ezinezko arrazoiengatik, zerbitzua edo jarduera eman edo garatzen ez bada, zenbatekoa itzuli egingo da.

#### **13. artikulua**

Prezio publikoen kontura hartutako zorrak premiamenduzko administrazio-prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira.

### VII. ORDENANTZA HONEN ONARPENA ETA INDARRALDIA

Ordenantza arautzaile hau indarrean egongo da behin-betiko onarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik; indarrean jarraituko du moldatu edo indargabetu bitartean.

**ORDENANTZAREN I. ERANSKINA / ANEXO I DE LA ORDENANZA**

| <b>Olaburu Frontoiko instalaziak erabitzeagatiko prezio publikoa</b>   | <b>Precio público por la utilización de las instalaciones del Frontón de Pelota Olaburu</b>  |
|--|--|
| <i>Noizbehinkako erabilera arrunta (BEZ gabe)</i><br>— Orduko tarifa: <ul style="list-style-type: none"><li>• Erroldatuak: 4,00 euro/pertsona.</li><li>• Ez erroldatuak: 6,00 euro/pertsona.</li></ul>   | <i>Uso ordinario ocasional (IVA no incluido)</i><br>— Tarifa horaria: <ul style="list-style-type: none"><li>• Empadronados: 4,00 euros/persona/hora.</li><li>• No empadronados: 6,00 euros/persona/hora.</li></ul>   |
| <i>Ezohiko erabilera</i><br>— Orduko tarifa (BEZ gabe): <ul style="list-style-type: none"><li>• Irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeak:<ul style="list-style-type: none"><li>– 4 ordurarte: 20 euro/orduko.</li><li>– 4 ordutik gora: 13 euro/orduko.</li></ul></li><li>• Bestelako erakundeak: 60 euro/orduko.</li></ul> | <i>Uso extraordinario</i><br>— Tarifa horaria (IVA no incluido): <ul style="list-style-type: none"><li>• Asociaciones y Entidades sin ánimo de lucro:<ul style="list-style-type: none"><li>– Hasta 4 horas: 20 euros/hora.</li><li>– A partir de 4 horas: 13 euros/hora.</li></ul></li><li>• Otras entidades: 60 euros/hora.</li></ul> |